

Betirako ikatza



Emilio Galdeano Biloriako ikazkina, udan, txondorraren kokotea ireki eta makilarekin lekua egiten, betegarria botatzeko. CONCHI CALDEANO

JON ORDOÑEZ
Biloria

Inork ez luke esango Emilio Galdeanoren bizitza (Biloria, 1940) film bat egiteko modukoa denik, film hori dagoeneko eginda egongo ez balitz. 15 urte-ekin hasi zen ikatza egiten. «Egurra lurraren fruitua da, herriarena». Lana ibarra osatzen duten bost herrietan (Nafarroa) ikatza egiteko tradizio handia egon da, eta horietako batean, Bilorian, bizi da Galdeano. Ikazkina da. Urbasa mendilerroak ematen du horretarako aukera. Arte ugari dago. «Uste dut Nafarroako bigarren mendi handiena dela», dio berak. Montxo Armendarizzen Tasio filmak bigarren zati bat izango balu, Biloriako ikazkinaren ibilbidea izan zezake-

Olentzerok lotzen du ikatza Eguberriekin. Urteberri egunean, ordea, Montxo Armendarizzen Tasio filma estreinatu zeneko urteurrena ospatzen da. Bi istorioetako ikazkinak bizimodu baten amaiera irudikatzen dute. Emilio Galdeanok, ordea, ikatza egiten jarraitzen du lehengo moduan, Urbasa mendilerroan.

en eredu. 23 urterekin ikatza utzi eta Bilbora lanera joan ostean, 1980ko hamarkadako industria krisiaren ondorioz herrira itzuli zen, ikatza egitera. Horretan segitzen du. Ikatza lanbide izan duen azken ikazkinetako bat da.

«14 urterekin bukatu nuen nik eskola, eta orduan lana egitea besterik ez nuen buruan. Eskola ez nuen batere gustuko; niretzat oke-

rragoa zen eskola lana baino». Hasieran anaiarekin eta osabarekin joaten zen mendira ikatza egitera, herrian bertan, nekazaritza lanak egin ondoren, gehigarri moduan. Gero, ordea, denbora luzeagorako Arabara joaten hasi zen. «Kontrata batek mendi bat erosten zuen, 200.000 edo 300.000 pezetatan. Lan-tegi bat ematen zigun ikazkin talde bakoitzari, eta hor aritzen ginen,

egurra moztu, txondorra egin eta ikatza ateratzen genuen arte».

Ikazkin lanaren gogortasuna Galdeanoren hitzetan sentitzen da. «Oso gogorra zen, oso gogorra. Egurra bidera ateratzen genuenetik, txondorretik ikatza jasotzen genuen arte». 150.000 kilo egur mugitzen zuten txondorra egiteko. «Orduan handiak egiten genituen. Gazteak ginen, eta lau edo bost gizoneko taldeak osatzen genituen. Hiru egin beharrean bat handia egin bagenezakeen, hura egiten genuen. Behin 38.000 ikatz kiloko txondorra egin genuen, orain dela 45 urte edo. Indarra bagenuen, eta egur-puskak nonahi». Gazteak ziren herri-kanpora ikatza egitera joaten zirenak. 60 eta 70 kiloko ikatz zakuak egiten zituzten, baita

80koak ere. «Nik orain hogeikoak egiten ditut. Indarra behar da».

Lana ez zen makala. Egur-puska handiak hartu eta puska txikiagotzen egin behar ziren. «Enbor handiak baziren orduan, eta zatitu egin behar ziren. Motozerrik ez zegoen garai horretan, noski. Gaur egun batek egiten duena orduan seien artean egiten genuen». Enborra zatitu ondoren, puskak egiteko mazoak erabiltzen zituzten. «Ziria jarri, eta bi pertsona aritzen ginen bata bestearen ondoren mazoarekin jotzen, puskak egiteko, kanpaia jotzen ariko bagina bezala. Ohituta geunden, baina leher egin da bukatzen genuen». Gaur egun, traktorearekin egiten du lan hori eta egun batean orduan hogeitatu egunetan egingo zukeen egiten du.

Gaur egungoa ez dela lana dio, egurra kamioi batean garraiatzen duelako. «Ikatza egiteko modua lehengo berbera da, ez da ezer aldatu. Baina egurra garraiatzeko moduan bada alderik». Gaur egun etxe ondoan egiten dituzte txondorrak, baina orduan egurra garraiatzeko orain dauden moduak ez zuten, mendian bertan egiten zuten, egur-puskak txondorrera sordaldan gerturatuz. Mendian pasatzen zituzten boladatan etxolatan egiten zuten lo. «Etxola eskasak ziren, txapa txarrekin edo zakuekin egindakoak. Batzuetan aitzurrarekin lurretik belar kapak hartu eta horiekin estaltzen genuen etxola».

SEI HILABETE, MENDIAN. Udaberri-rik udazkenera arteko garaia da ikatza egiteko aproposena, eta hori izaten zen kanpora joaten zireneko. Garbitzeko urrik ez zuten: «Ordu erdi ibili behar izaten genuen ura hartzeko, eta hartzen genuena sukaldetan aritzeko erabiltzen genuen, eta edateko. Hori eta ardoa edaten genuen». Neguan ere egiten zen ikatza, baina gutxiago ateratzen zen. «Udaberri-rik udazkenera ikatz kilo bat egiteko lau kilo egur behar dira. Neguan, ordea, bost edo sei kilo egur. Hezetasunagatik, lurra bustita dagoelako, egurraren erdia erretzen da».

«Sei hilabetetarako joaten baginen, hantxe sei hilabete. Ez jaiegunik, ez iganderik... Mendian ez genuen beste entretenimendurik, ikatza besterik ez. Gure asmoa lehenbailehen bukatzea zen, etxera itzultzeko. Ahal genuenean etortzen ginen asteburuetan. Bizikletatik trenera, eta trenetik bizikletara joaten ginen». «Kontratastarekin kiloko prezio bat adosten genuen, eta hori zen gure parte». Lehen kilok 0,45 pezetatan kobratu zituen (0,002 euro). Galdeanoren arabera ez zen dirua egiten zuten lana ordaintzeko. «Egurra mugitzen bakarrak egundoko lana egiten genuen. 100 kilo egur ere hartzen genituen aldi bakoitzean».

Gazte garaiko sasoi oroitzen du behin eta berriz Biloriako ikazkinak. Bihotzean ebaketa egin zioten orain dela urte batzuk, eta medikuak bizitza normala egiteko esan zion. «Esan genion medikuari zain